

# 1. Gaia: Sarrera

## 1. Filosofiaren alderdi negatiboak

Filosofia errealitatea aztertzeaz arduratzen den disziplina da, modu global batean, egitzat jotzen ditugun ideia guztiak kolokan jarritz. Ideia zientifiko, moral edo erlijiosoak kuestionatuko ditu, batzutan deserosoa izatera helduz. Lan hau beharrezkoa da gizarteak aurrera egiteko, baina hala ere, jakintza mota hau gehienetan gutxiesten da. Zergatik? Normalean, hainbat aurreiritzi edo ideia negatibo lotzen dira filosofiarekin: ez duelako ezertarako balio, filosofoak denetaz eta ezertaz ari direla... Filosofia zer den ulertzeko, bere ezaugarri "negatiboak" azaltzea baliagarria izan daiteke:

### - Aristotelesen ikuskera

Aristotelesek, filosofia definitzeko zientziarekiko banaketa bat egin zuen. Bere ustez, zientzia *genero* zehatz batera lotu behar da, errealitatearen esparru zehatz batetara mugatuta dagoela, eta beraz, ezagutza partziala soilik lortu ahal duela. Gainera, *axioma* edo ideia finko batzuek definituko dute zientzia ororen ibilbidea, eta horren helburua beti errealitatea azaltzeko frogak lortzea izango da.

Hori kontuan hartuta, filosofia ez da zientzia bat, ez duelako errealitateko esparru mugaturik aztertzen eta ez dituelako frogak biltzen (gutxienez Aristotelesek frogak kontsideratzen zituenak), baina horrek ez dio baliorik kentzen disziplina honi. Hala ere, zientziak filosofia baino erabilgarriagoak direlaren ideia hori garai honetatik etor daiteke, zehaztasun eta muga falta horrek ulertzeko zailagoa bihurtzen duelako filosofia.

### - Zientzien eta filosofiaren arteko banaketa

Aristotelesen garaitik aurrera eta mende askotan zehar, filosofia eta zientzia banatzen baziren ere, erlazio estua zegoen bien artean. Kasu askotan, pertsona bera izan zitekeen filosofoa eta zientzialaria (Alexandriako Hypatia, Descartes...), badaudelako hainbat auzi bi esparru hauen artean mugitzen direnak. Hala ere, erlazio hau apurtzen joan da, eta zientziek autonomia irabazi dute denboran zehar, espezializazioaren izenean filosofiatik aldentuz.

Honen ondorio zuzen bat filosofiaren "hustea" da, hasieran jakintza honen barruan zeuden hainbat disziplina (psikologia, astronomia...) banatu eta aztergaia kendu diotelako filosoforari. Honen adibide garbi bat Willard van Orman Quine filosofoa da, bere ustez, epistemologiaren gai zentral bat (uste izatea, eta lekukotasunaren garrantzia) psikologiaren gai gisa azertu daiteke, eta beraz, filosofia ez du zer esaterik eztabaida horretan. Hau egiterakoan auzi ororen dimentsioak mugatzen dira, pentsamendua sinplifikatu nahian. Zientzia eta filosofia ez dira aurkakoak, ezagutza osora hurbiltzeko biek elkarlanean aritu

behar dute. Zientziak errealitateari buruzko jakintza eman dezake (hainbat kulturetan ablazioa praktikatzen da), baina filosofiak errealitate hori ebaluatzeko boterea izan dezake (etikoa ahal da gorputz bat kulturaren izenean mutilatzea?).

#### - **Filosofoak eta sofistak. Filosofoak eta hitzontziak**

Askotan hitz egiten trebea den eta gai ugari buruzko jakintza duen norbait filosofo izendatzen dugu, normalean zentzu negatibo batean. Honek Grezia klasikoko auzi bat ekartzen du gogora, hau da, filosofoen eta sofistak arteko banaketa. Sofista hitz eginez edonor konbentzitzeko gai zen figura bat zen, erretorika klaseak ere ematen zituenak (garai klasikoan ondo hitz egiteak demokrazian parte hartzeko aukera ematen zuenez asko goren zen). Platonek eta Aristotelesek asko kritika zituzten, ezagutzen esparru ugari arakaten bazituzten ere hauek arguditzeko "tranpak" egiten zituztela esanez. Hau frogatzeko, Aristotelesek hizkuntzaren teoria (geroago logika deituko dena) garatu zuen, sofistak argudioak salatzeke helburuarekin: sofistak helburua jendea liluratzea da eta filosofoena jakinduria.

Gaur egun ere banaketa hori egiten da, eta "hitzontziak" filosofo izendatzen dira askotan, arrazoirik gabe. Filosofoek argudioak kontuz eraikitzen dituzte, hitzei garrantzia emanez, baina zintzotasunari, zorrotzotasunari eta edukiari ere berebiziko garrantzia ematen diote. Sofistak definizio honetatik filosofiaren aurkako ideiak sortu dira, honen irudia desfiguratu delako.

#### - **Filosofia apriorikoa da?**

Filosofia zientziatik bereizten duen beste ezaugarri bat (eta beraz hau gutxiesteko erabili izan dena) "a posteriorikoa" ez izatea da. Haien metodoa mundua aztertzea da, gero honi buruzko teoriak garatzeko, eta euskarri fisikorik gabe ez dute aztergairik (matematikak izan ezik). Askok uste dute filosofia kanpoko munduko estimulurik gabe egin daitekeela, gogameneko prozesu bat dela, eta beraz, ez dela erabilgarria. Hala ere, irudi hau ez da egia filosofia gehienarentzat.

Maila abstraktu eta teoriko bat izatea beharrezkoa da zientzia guztietan, teoria ugari esperientziatik aldentzen direlako, eta beraz, filosofia guztiz teorikoa dela pentsatu beharrean abstrakzio gradu altu bat duela irudikatu behar da. Gehien bat errealitatean frogatu ezin diren teoriak osatzen badute ere, gizakion bizipenetan eta mundua ulertzeko eran oinarritzen dira, eta beraz, beharrezko konexioa izan behar dute errealitatearekin. Egia da zientzia modu argi batean erabilgarria dela, instrumentu gisa erabili dela, baina ez al da filosofia erabilgarria?

#### - **Filosofiak ez al du eraginik gizartean?**

Lehen, gehien bat Grezia klasikoan, filosofiak garrantzi handia zuen eguneroko bizitzan. Korrante filosofiko baten jarraitzaileek muturrera eramaten zituzten haien ideiak (zinikoei arauen kontrako bizitza lortzeko dena ukatzen zuten, estoikoek sentimenduak bazterten

zituzten pertsona hotzak bihurtuz...) eta filosofoek postu garrantzitsuak zituzten (Aristoteles Alejandro Magnoren aholkularia izan zen). Gaur egun, filosofia bigarren mailako jarduera intelektual gisa ulertzen dugu, eta ez gara konturatzen disziplina honek gure eguneroko bizitzan duen garrantziaz.

Gaur egungo gizartean filosofiaren barne dauden kontzeptuek garrantzi handia dute: Rosseauk proposatutako ideien Iraultza Frantsesa ahalbidetu zuten, Adam Smithen *merkatu librearen* kontzeptua proposatu zuen, Marxen *klase borroka*, Hanna Arendt-ek gaizkiaren hutsaltasunari buruz zituen ideiek boterea ulertzeko modua aldatu zuten... Egia da eragin hau ez dela epe motzekoa, eta gaur egungo joera arazo denak modu azkarrean konpontzea dela, baina beharrezkoa da auzi sozialei buruz hausnartzea modu astiroago batean.

## **2. Filosofiaren ezaugarri positiboak**

Filosofiaren gaineko aurreiritzi negatiboak alde batera utzita, honen ezaugarritze positiboak ere beharrezkoa da, benetan filosofiak zertan datzan ulertu ahal izateko.

### **- Filosofia eta zientzia**

Filosofiak baditu zientziarekin zerikusi handia duten galderak, eta zientzia bere mugen barruan guztiz erantzuteko gai ez den arren, bere ekarpenak ezinbestekoak dira auzi hauek hobetu ulertzeko. Filosofiak eta zientziak, askoren usteen kontra, elkarlana behar dute. Hona hemen hainbat adibide:

1. *Aukeramen askearen auzia*: ze punturarte gara askeak egiten edo esaten duguna aurrera eramateko? Pentsalari ugari hitz egin dute gai konplexu honen inguruan, emaitza argirik gabe, baina argi dago zientziak (psikologiak, neurozientziak...) ezin dutela auzi hau bere osotasunean azaldu, esparru etikoa eta epistemologikoa zeharkatzen dute eta.
2. *Errealitatearen gaineko ikuspegiaren arteko harremanak*: zientzia bakoitzak errealitatea modu batean ikusten du (fisikariek atomoak ikusiko dituzte, biologoek zelulak...), eta askotan ez datoz bat eguneroko bizitzan hautematen dugunarekin. Pentsalari askoren ustetan, ikuspegi oso baten beharra dago, osagai desberdin hauetatik aratago ikusten duena, eta hau, zientzietatik aratago doanez, filosofiaren esparruan koka daiteke.

### **- Filosofia zientzietatik harantzago**

Filosofiak zientzian garrantzi handia duen arren, aurreko puntuan ikusi bezala, eguneroko bizitzan ere ezinbestekoa den disziplina bat da. Filosofiak alderdi praktikoa du, gure jarduerak, mundua aldatzeko egiten ditugun ekintzak, giza harremanak, ekintza artistikoak, politika... ere filosofiaren aztergaiak dira eta. Ikuspuntu orokor batetik esan daiteke ezagutzaz eta ikerketaz arduratzen den filosofia *filosofia teorikoa* dela, eta eguneroko

bizitzaz arduratzen dena berriz *filosofia praktikoa*, non etika, politika edota estetika bezalako atalak bereizten diren. Gizakiak eta animalietaz bereizten gaituzten bi dimentsio ditugu: teorikoa (ezagutzaz, usteen bildumaz edota teoretiaz arduratzen dena) eta praktikoa (mundua aldatzeko eta bertan eragiteko gaitasuna), eta hori da filosofiak berak ere egiten duen bereizketa.

Egia da badaudela beste giza zientzia batzuk eguneroko ekintzetaz arduratzen direnak, maila batean edo bestean, baina filosofiaren garrantzia disziplina *arauemailea* dela da. Filosofia ez dago beste gizarte zientziak bezala mugatuta, eta beraz, beste zientziek sortzen dituzten teoriak pnak edo txarrak diren erabakitzeko tresnetaz arduratzen da, hala nola, ongia edo justifikazioa bezalako kontzeptuen inguruan hausnartuz.

Filosofiaren alderdi praktikoa honetan berebiziko garrantzia dute balioek eta zehar kontzeptuek, *Think* liburuan Simone Blackburnek dioen moduan, mundua kontzeptuen sare gisa ikusten dugulako, zehazki zehar kontzeptuena. Kontzeptu hauek abstrakzio maila bat dute, eta askotan era tektikoan erabiltzen dira zientzian, erlijioan... baina eguneroko bizitzan ere eragin handikoak dira. Beraz, izaera transbertsala dutela esan daiteke, eta etengabe erabiltzen diren arren, ez dira zehaztu eta definitzeko errazak. Ikus ditzagun adibide batzuk:

1. *Jakintza eta uste izatea*: bi kontzeptu hauek, eta haien arteko desberdintasuna zehaztea, berebizikoa da gure eguneroko hizkeran. Askotan esaten dugu “uste dute” edo “badakit”, gure burua egoera berezietan kokatuz, jakintzaren maila desberdinetan kokatzen baitgara horiek ezagutu gabe. Beste alde batetik, ezagutza mota desberdinak (artistikoa, erlijiosoa, zientifikoa...) badaude, denak maila berean ahal daude? Animaliek usterik edo jakintzarik ahal dute? Kontzeptu hauek ekartzen dituzten galderak eta haien erabilera desberdinak kontuan hartuta, zehar kontzeptu baten aurrean gaudela esan daiteke.
2. *Justizia*: kontzeptu hau eguneroko bizitzan gertakariak baloratzeko edo sufrututako egoerak salatzeke erabiltzen dugu, zerbait “injustoa” dela esaten dugunean, badugulako honen inguruko intuizio bat. Uste dugu merezi duguna jasotzen dugunean justizia aurkitzen dugula, berdintasunez bizi garela. Hala ere, intuizio hauek askotan talka egin dezake, berdintasuna aldarrikatzeak merezimenduen kontzeptua murriztu dezakeelako. Gainera, justizia sisteman kontzeptu hau sistemikoki erabiltzen da, non etikak ere rol garrantzitsua duen. Horregatik izan daiteke justizia bermatzeko erabakitako lege bat injustua, gure ikuspuntu etikoarekin bat ez datorrelako. Justiziaren izaera intuitibo eta tekniko bateratzea ez da erraza, horregatik da filosofiaren auzi eztabaidatuena.
3. *Kausa (efektu) kontzeptua*: kausa eta efektuen arteko erlazioa zientzian eta eguneroko bizitzan etengabe aipatzen da, baina hau zehaztasunez erabiltzeko kausalitateari buruzko ideia orokor bat izatea beharrezkoa da, eta horixe da filosofiaren eginkizuna. Ez da nahikoa A gertatzean B gertatzen bada A B-ren kausa dela esatea, bestelako faktoreak eta kontzidentzia ez direlako kontuan hartzen, eta agian frogatu ez diren kasu batzuetan A-k C dakarrelako, ez B. Humeren arabera, kausa *unibertsoaren porlana* da, gertakari guztiak erlazio kausalaren bidez lotuta daudelako, unibertsoa sendotuz eta hau “ulertzeko” gaitasuna ematen digute. Esparru zientifiko eta informaletan erabiltzen den kontzeptu hau dudarik gabe zehar

kontzeptu bat da, ulertzeko eremu desberdinen partzialtasuna gainditu eta orokortasunera jo behar baita.

4. *Balioak*: eguneroko bitzan balioetan oinarrituz sailkatzen dugu gure inguruan dagoen dena (polita, zuzena, ona, nazkagarria...), hitz hauen zama positibo edo negatiboaren arabera gauza desberdinei inguruko iritziak orokortuz eta gure jokabideak bideratuz. Balio hauek etikoak, estetikoak, kulturalak... izan daitezke, eta beraz esparru desberdin hauek kontuan hartzen dituen balio sarea ulertzea ia ezinezkoa da, artelan bat "bikaina" dela eta nire afaria ere "bikaina" dela esaten dugunean, hitz horrek erabilera antzekoa duela esan daiteke, baina maila desberdinetan erabiltzen denez, esanahiak aldaketak izan ditzake. Horregatik da hain zaila zehar kontzeptu hau arakatzea, esparru domestikoa baita esparru sofistikuagoak ere kontuan hartu behar direlako.
5. *Zoriontasuna*: gizakiok lotura zuzena egiten dugu ondo bizitzearen eta zoriontsu izatearen artean, baina ez da erraza zoriontasun horrek zertan datzan zehatzea, modu orokorrean, zer nolako mundua nahi dugun edo zer nolako pertsonak izan nahi dugun izendatzeko erabiltzen den arren. Aristotelesen arabera zoriontasuna kontzeptu etiko-politikoa da, komunitatea osoarentzat norberak jarduera bertutesu hoberenak egitean lortzen duena, kanpo eragileei garrantzia kenduz. John Stuart Millék, adibidez, zoriontasuna kolektiboa dela defendatuko du, gehiengoaren zoriontasuna helburu gisa jarritz. Beste pentsalari batzuek zoriontasuna gogo-egoera atsegin gisa ulertzen dute, baina, gu bakarrik zoriontsu izan gaitzake? Zoriontasunak, ikusi bezala, beste zehar kontzeptuekin harremana du, justizia eta askatasuna bezalakoekin, eta beraz, egunero erabiltzen dugun kontzeptu hau aztertzerakoan hausnarketa sakona egin behar dela ikusi dezakegu. Zoriontasuna definitzerakoan, munduaren edo gure buruaren egoera idelak definitzen ditugu, eta maila handian hortan datza ideia honen balio filosofikoak.

#### - **Filosofiaren izaera kritikoa**

Aipatutakoaren arabera, ikusi daiteke filosofiak arazoan ikuspegi orokorra eskaintzen duela, eta beraz, honek bere oinarrian dagoen izaera kritikoa ahalbidetzen du. Zientzia esparru denek mugak dituzte, baina filosofiak muga horietan arakatzeko aukera du, berak dituen muga bakarrak pentsamenduaren mugak dira eta. Ezaugarri hauek dituen disziplina batek ezin izango ditu zientziak ematen dituen erantzun zehatzak emago. Bertrand Russellen hitzetan, filosofia ez da ematen dituen erantzunengatik ikasi behar, baizik eta egiten dituen galderengatik.

Filosofiaren berezko izaera hau Sokratesen eta Platonen elkarriztetan ikusi daiteke, non kontzeptu konplexuak definitzeko saiakerak egiten diren (justizia, ongia, maitasuna...). Sokratesek erantzun ororen baitako kontraesanak, arazoak edo zentzugabekeriak agerian jartzen ditu, eta elkarrizketa hauen bidez benetako definizioak eskuratzen ez dugun arren, haien ezaugarritzerantz mugitu gara eta ikusi dugu aurretik genituen ideia sendoak benetan ahulak direla. Hori da filosofiaren alderik garrantzitsuena: aurretik ezarritako eta egitatz hartutakoa kuestionatzea, beti hor egongo den errakuntzaren arriskua murrizteko. Filosofoen ahots kritiko hau gutxitan entzuten da, esparru partzialetatik datozen ahotsei

garrantzi handiago ematen zaielako erantzun zehatzak emateko gaitasunagatik, baina ezin da ahaztu auzi hauek azterketa orokor eta motelako bat ere behar dutela.

Filosofoaren jarrera deserosoa gertatu beharko litzateke, ez duelako atsedetik ematen eta erne egotera behartzen gaituelako. Elena Martinez Rubiok dioen bezala, filosofiak begiak irekitzeko balio du, eta "bidaia filosofiko turistikoetatik" ihes eginda, adi egon behar da benetako bidai filosofiko bat egiteko, eta hori da gaurko gizartean falta dena. Gure garaian ez dago denborarik sakontasuna eta moteltasuna baloratzeko, eta beraz ideologiakeriak eta alderdikeriak zabaltzen dira. Teknologiaren auzian, adibidez, kexarik gabe onartu dugu gure bizitzako ia esparru guztiak kontrolatzeko gailuak direla, gertakari naturala izango balitz bezala, garai batean makinak agertu zirenean izugarrizko mobilizazioak egon ziren arren. Filosofiak kontrol gailu hauei buruzko eztabaidan urteak daramatzate, baina haien ahotsa ez da gizartean hedatzen, burbuila akademikoan gelditzen da, bi aldeek errua izan litekeena.

Mendebaldeko gizarte kapitalistak auzi etikoak kutsatu ditu, gizabanako bera kapitalista bihurtu duelako. Gure baitan nartzisismoa, irabaziak izateko nahi desmesuratua, abarizia, banitatea... jarri ditu, eta norberak bere ikuspuntu etikoa planteatzen ez duen bitartean zaila izango da gizartean aldaketa sakonak ikustea. Filosofiak betidanik hausnartu du honen inguruan, izan ere, nolako mundua nahi dugun edo zer motatako pertsonak izan nahi dugun eztabaida filosofikoaren gai zentrala izan da askotan.

## 2. Gaia: ezagutzaren teoria

Ezagutzaren teoriak edo epistemologiak garrantzi handia du filosofian, eta bertan izaera unibertuala duten *jakin* eta *ezagutu* kontzeptuak erdigunean kokatzen dira. Hizkuntzan oinarrituz, hiru ezagutza mota bereiztu daitezke: *objektuen ezagutza* (Paris ezagutzen dut), *gertakarien ezagutza* (badakit Jon Bartzelonan dagoela) eta *jakin-nola* (badakit bizikletan ibiltzen). Epistemologian, *gertakarien ezagutza* hartzen da aztergai, alegia, justifikazioarekin lotuta dagoen ezagutza.

Eguneroko bizitzan “jakin” kontzeptuak duen funtzionamenduari erreparatuz honen inguruko hainbat ideia azaldu daitezke. Alde batetik, barneratuta dugu zerbaite jakiteko hau egiazkoa izan behar dela (Jon Bartzelonan dagoela badakidala esaten badut, Jon Bartzelonan egon behar da esaldiak zentzua izateko), eta itxuraz dakigun zerbat faltsua dela suertatzen bada, jakite mailatik *uste* mailara jaisten da (uste nuen Jon Bartzelonan zegoela, baina Donostin ikusi dut): usteek egia izan nahi dute, jakintzak egiazkoa izan behar du. Pentsalari ugari uste eta jakitearen arteko desberdina boterea dela defendatu dute, eta egia da ideia honek historian zehar gertatutako injustizia ugari salatzeke aukera ematen duela, baina gobernu edo autoritate batek bere ustea egi gisa zabaltzen badu ere, maila epistemologikoan uste izaten jarraituko duela aipatu behar da.

Ezagutzari, egiari, errealitateari edo justifikazioari buruz eguneroko hitz egiten dugu, gure usteak egiaren bidetik doazela irudikatzeko, baina hainbat pentsalari eszeptikok hauen aurkako jarrera hartu dute. Haien ustez, egia erlatiboa denez ezin da inoiz ezta ezagutu ezta justifikatu, eta beraz, ez du zentzurik haietaz mintzatzeak. Iritzi honek balio maila bat izan dezake teoria gisa, baina egia da eguneroko bizitzan zentralak diren kontzeptuak direla, eta ezinezkoa denez hauek erabili gabe komunikatzea, ez du zentzurik eguneroko bizitzara aplikatu ezin den teoria bat proposatzeak.

### **1. Jakitearen eta uste izatearen arteko erlazioa. Justifikazioaren kontzeptua.**

Intuitiboki, zerbaite jakitean horixe bera uste dugunean baino sendotasun maila handiago bat dugula sentitzen dugu, kontzeptu batek besteak baino indar gehiago izango balu bezala. Erlazio hortaz ari zaigu Platon *Teeteto* izeneko elkarrizketan, non jakitearen hiru definizio aztertzen dituen:

1. Jakitea hautematea baino ez da (155e)
2. Jakitea egiaz uste izatea da (187)
3. Jakitea egiaz eta modu justifikatuan uste izatea da (201d)

Lehenengo definizioari dagokionez, Platonek erlatibismoaren auzia jarriko du mahi gainean, norberaren pertzepzioak dituen arazoak mahi gainean jarritz. Hautematen duguna iruditzen zaiguna bada, eta hau norberaren menpe badago, jakituria ere norberaren menpe egongo da, eta beraz, ez da modu objektiboan existituko. Badirudi egiari “arabera” bat jartzen zaiola,

eta beraz ez dago egiazko kontzeptuak eta kontzeptu faltsuak desberdintzeko aukerarik, nire ideien arabera diodana beti egia izango delako. Horregatik, bigarren eta hirugarren definizioetarako Platonek egiarekin lotuko du jakituria, eta ildo horretatik ulertu behar dira.

Bigarren definizioan uste izateak garrantzia hartuko du, eta uste horien artean egiazkoetan kokatuko du jakituria. Hala ere, adibide baten bidez definizio honetan agertzen den arazoa azalduko du: demagun abokatu batek bere bezeroa defendatzen duela epaimai baten gainean, hilketa bat aurrera eramateaz akusatzen dutelako. Abokatuak ez daki bere bezeroak zer egin zuen hilketaren gauan, baina hizlari oso trebea denez, istorio konplexu bat asmatzen du errugabetasuna justifikatzeko, eta epaileak dena sinesten du. Harrigarria bada ere, abokatuak asmatutako dena egia da, berak aurretik jakin ez arren. Esan daiteke kasu honetan epaileak badakiela salatua errugabea dela? Platonen arabera, ez, epaileak kasualitatez egia den zerbait sinesten duelako, inongo ebidentziarik gabe.

Bide honetatik hirugarren definizioa iristen gara, non uste eta egia kontzeptuetaz gain "justifikazioaren" kontzeptua ere agertzen den. Hala ere, justifikazioaren gaineko beste arazo bat proposatzen digu Platonek: P ustea justifikatzeko beste uste bat proposatu behar dut (Q), eta aldi berean Q justifikatzeko beste uste bat proposatu behar dut (S), eta horrela amaierarik gabeko kate bat osatuz. Batzuen ustez, beharrezkoa da justifikaziorik gabeko uste edo premisa batzuk izatea, maila batean edo bestean jakituriaren justifikatzeko gaitasuna bermatu ahal izateko: ezin da jakituriaren "zuhaitz" bat eraiki oinarritzko "sustrairik" gabe. Beste filosofo batzuek ezagutza zuhaitz baino "sare" gisa planteatzen dute, usteen arteko koherentziari justifikazio absolutuari baino garrantzi handiagoa emanez. Arazoak arazo, Platonen azken definizio hau gaur egun arte eztabaidatzen dena da, justifikazioaren kontzeptua eztabaidatzen den neurrian.

Definizio honen aurkako adibide interesgarri bat Bertrand Russellek proposatu zuen: nik egunero udaletxeko erlojuari erreparatzen diot, eta gaur begiratzean, zortziak eta laurden zirela ikusi dut, benetan zortziak eta laurden zirenean. Platonen arabera nik badakit ordua hori dela, modu justifikatuan egia den zerbait uste dudalako, baina nik ez dakidana da atzoko zortziak eta laurdenetan erlojo hori gelditu zela. Beraz, nire justifikazioa okerra da eta aldi berean zuzena, egoera paradoxiko bat sortuz. Adibide honetik, Russellek justifikazio batek beti huts egin dezakeela erakusten du: nik P badakit ezinezkoa da P-ren gainean oker egotea, baina beti da posible P-ren gainean oker egotea, eta beraz, ez dakit P. Hau konpontzeko hainbat pentsalarik oinarritzko uste ziurrak proposatu dituzte, hala nola, Descartes "uste dut beraz banaiz". Honi ikuskera fundazionalista deritzo, baina uste ziur hauek oso eztabaidagarriak izan daitezkenek, ez dute auzi hau konpontzeko baliabide berririk proposatzen.

Aipatutako aldeko eta aurkako argudioak *Teeteto* elkarrizketan proposatutako egituraren arabera dira, hau da, ustetik jakitzea eratortzen delaren ideiaok dira: lehenik eta behin uste bat dugu, eta uste hori egia den neurrian zerbait jakin dezakegu. Hainbat pentsalarik, hala nola Timothy Williamsonek, honi buelta eman zioten, uste izatea jakitetik eratorritako kontzeptua dela argudiatuz. Geometrian, adibidez, naturan dauden zirkulu formak aztertzeko zirkulu matematiko perfektura jotzen da, ez da zirkulu inperfektuetatik perfektu bat sortzen.



## **2. Arazoak justifikazioaren kontzeptuaren baitan. Indukzioaren arazoa**

Aurreko ataletik ondorioztatu daiteke ia ezinezkoa dela jakitearen kontzeptua definitzea, eta hau mugatzeko, justifikazioan zentratuko gara, ezagutza alde batera utzita, uste justifikatu bat jakintzaren mailan egotera heldu daitekeelako.

David Humek uste justifikatuaren ideari eraso egin zion, gai honetan arazoak proposatuz. Hume *apriorizko* eta *aposterioriko* (egunerko bizitzan eskuratzen dugun ezagutza enpirikoa) ezagutzak banatu zituen, beste pentsalari askok bezala. Azken honetatik jasotzen dugun ezaugutza dena indukzioan oinarritzen dela defendatuko du, eta bere ustez, ezinezkoa da indukzioa justifikatzea. Bere ustez, justifikazio hau "etorkizuna iraganaren antzekoa da" premisan oinarritzen da, adibidez, Eguzkia gaur aterako dela diogunean atzo atera zelako, baina ideia hau beste indukzio batean oinarritzen da, eta beraz, *indukzioaren arazoa* sortzen da, justifikatu gabeko ideia batera helduko garelako beti.

Humen proposamena baliogarritzat hartzen bada arazo epistemologiko larri bat sortzen da, jakitea ezinezkoa izateaz gain ezagutza enpirikoa justifikatzea ere ezinezkoa izango litzatekeelako. Kasu honetan uste guztiak maila berean egongo lirateke, eta justifikazioaren kontzeptua hutsala izango litzateke. Zein da honen irtenbidea?

## **3. Fundazionalismoari muzin. Koherentismoa?**

Hasieran ezarri dugu jakitea definitzea ezinezkoa dela, ezagutza osoari ziurtasun absolutua eskatzea gehiegi delako, baina gero, Humeren eskutik ikusi dugu, justifikazioari ziurtasun maila bat eskatzea ere gehiegi dela. Bi kontzeptu hauek arazo bera dute, *ziurtasunaren mitoa*, fundazionalismoaren ikuspegian eragin handikoa dena.

Fundazionalismoak ziurtasunez dakizkigun gauzak ezarri nahi ditu, hala nola, Descartes arabera ziur badakigu pentsatzen dugula eta beraz existitzen garela. Rusellek pausu bat haratago eraman zuen ideia hau, eta irudikapenak ere ziurak direla gehitu zuen: ez dakit nire aurrean jendea badagoen, baina badakit jendea dagoelaren irudikapena dudala. Arazoa irudikapen hauek eta errealtatean gertatzen denaren arteko lotura egiterakoan ematen da, hau da, jendearen irudikapenetik jendea egotera. Eszeptikoek eta Descartesek berak bi gertakari horien arteko lotura ziurtasunez egutzera heltzea ezinezkoa izatearen arazoak azaldu zituzten, zentzumenetan oinarritzea eskatzen duelako eta hauek engainatzen gaituztelako (haluzinatzen egon gaitezke, ametsetan...). Beraz, Descartes proiektu fundazionalista (egi ziur batetan oinarrituz errealtatearen ikuspegi ziurra eraikitzea) aurrera eramatea ia ezinezko auzia da. Humerekin kasu bera ematen da, berak iraganeko gertakari batetik etorkizuneko batera pasa nahi duelako ziurtasunez, baina hori ere zentzuetan oinarritu behar da.

Badirudi Descartes eta Humeren ideiak jarraituz ezin dela eszeptizismotik ihes egin, inoiz ezin dugula ezer ezagutu, baina badaude honen aurkako teoriak. Kontua da aurreko adibideetan ezagutza maila desberdinetan kokatzen dela, eta behetik gorako bide bat egin nahi dela goian dagoen ezagutza osoa lortu harte. Hala ere, ezagutza maila berean dauden

ideia desberdinen sare bat bezala ere ulertu daiteke, eta horrela ezagutza eta justifikazioa bideratzeko modu edo irizpide nagusia *koherentismoa* izango da, hau da, ideiek haien artean duten lotura zentzuduna izatea. Honek ere arazoak ditu, ezagutzaren eraikin oso koherente bat baieztapen faltsuetan oinarritu daitekeelako.

Bi ikuspegi hauen arteko ikuskera epistemologiko alternatiboak badaude, adibidez, Susan Haack pentsalariak proposatu zuena. Bere ustez, ezagutza gurutzegramak gisa irudikatu daiteke, eta bertan jartzen diren hitzak bi irizpiderekin erabaki daitezke: arrasto batetik lotzen den hitz egokia bada edo gainerako hitzekin koherentzia badu. Bi irizpideak batera ematen direnean lortzen da hitz zuzena, hau da, fundazionalismoak defendatzen duen ziurtasuna eta koherentismoak defendatzen duen egien arteko erlazioa beharrezkoak dira ezagutza izateko.

#### **4. Agriparen eszeptizismoa**

Eszeptizismoa hainbat kasutan aipatu dugu, bai Descartesen edota Humen teorian, gaur egun arte bizirik mantentzen den jakintza/justifikazio eztabaidan oinarritzeko den auzi bat delako. Atal honetan, lehenengo eta bigarren mendearen inguruan bizi izan zen Agripak proposatutako argudio eszeptiko klasikoa aipatuko dugu.

Eman dezagun gertakari bat justifikatu nahi dugula (p), eta horretarako, beste bat erabiltzen dugula (p1). Justifikazio hori ere justifikatzeko p2 aipatu behar da, eta gero p3, eta gero p4... eta horrela kate infinitu bat sortu arte. Jatorrizko p-ren justifikazioa lortzeko, Agripak hiru aukera eszeptiko posible proposatu zituen:

1. Kateak amaierarik ez izatea
2. Katea justifikazio gabeko azken kontzeptu batean amaitzea (q), premiarik gabeko usteak onartuz.
3. Amaiera izatea (q), baina q aldi berean lehen lortutako uste bat izatea, eta beraz, katea q-ren inguruan biraka dabilen gupil zoro baten itxurakoa izatea.

Hiru aukera hauek Agriparen ustez txarrak dira: lehenengoak ez du justifikaziorik proposatzen, bigarrena usteetan oinarritzen da soilik eta hirugarrenak ez du erantzun garbirik emateko gaitasunik. Aipatzekoa da fundazionalistek bigarren aukera erabiltzen dutela oinarritzat, justifikazio gabeko usteak egiztat hartuta eraikitzen dutelako ezagutza (pentsatzen dut, existitzen naiz...). Koherentismoak hirugarren aukeratik urbilago dagoen ikuspegia du, baina Agripak ez bezala, ez dute gupila zoroa kontsideratzen, sarearen korapilotik beste korapiloetarako loturari berebiziko garrantzia ematen diotelako.

#### **5. Lekukotasuna**

Lekukotasunaren bidez gure uste gehienak eskuratzen ditugu. Gaur egungo gizartean, hala ere, tradizionalki lekukotasuna kontsideratu dena (norbaitek zerbait esaten dit eta ni hortaz fidatzen naiz) motz gelditzen da, askotan informazio hori ez dugulako zuzenean pertsona

batetik jasotzen: liburuak, interneta, gure ingurua neurtzeko gailuak (termometroak, GPSak...) eta abar gure eguneroko bizitzan ezinbestekoak dira, eta haiek ematen diguten informazioaz asko fidatzen gara. Argi dago lekukotasunak gure eguneroko bizitzan berebiziko garrantzia duela, baita ikerketa zientifikoetan edo historikoetan, baina epistemologian honi buruzko ikuspegi desberdinak egon dira.

Alde batetik Locke dugu. Bere teoriaren arabera, lekukotasunak ez du lekurik ezagutzen, berak ziurtasuna kokatzen duelako beharrezko ezaugarri gisa eta lekukotasuna ez delako ziurra (logika honek ere arazoak ditu, lehen aipatutako *ziurtasunaren mitora* itzultzen delako). Beste alde batetik Thomas Reid filosofo ilustratu eskoziarra dugu. Bere ustez, lekukotasunak bere eginkizuna betetzen du naturan bi kontzepturengatik, *egiazkotasun printzipioa* (gizakiak egia izateko tendentzia naturala du) eta *sinesgarritasun printzipioa* (gizakiak esaten zaiona sinesteko tendentzia naturala du). Hau umeetan ikusi daiteke argi eta garbi, eta Reiden arabera, autoritatearen usteak finkatzeko erabili daiteke propaganda modura.

Gaur egun ere, pentsalari ugari uste dute, Reidek bezala, lekukotasuna ezagutza eskuratzeko bide garrantzitsu bat dela, hautematea, oroimena edo arrazonamendua bezain baliagarria. Hala ere, honi zenbait baldintza jartzen dizkiote ezagutza bide izan dadin: ezagutza egiazkoa izan behar da eta informazioa ematen duenak jakin behar du informazio hori benetazkoa dela (Nagelen kuboaren alegoria). Hala ere, ezin dezake irakasle batek berak benetan sinesten ez duen ezagutza bati buruzko informazioa eman? Ezin dezakegu informazio oker bat denon artean osatu egiazkoa izan arren? Bertan ageri uzten da kasu batzutan lekukotasunak ez dituela baldintza hauek bete behar egiazkoa izateko. Edward Craigeek, beste alde batetik, ezagutzaren kontzeptua lekukotasunaren menpe dagoela defendatuko du, lekukotasun honen iturriak sailkatzeko erabiltzen delako.

Humek lekukotasunaren garrantzia defendatuko du, hezkuntzaren garrantzia defendatzen duen heinean. Bere ustez, giza bizitzan ez dago irakasle batek eskeinitzako ezagutza baino arrazonamendu ohikoagorik, erabilgarriagorik eta beharrezkorik. Hala ere, lekukotasun hau ezagutzaren beste bideetan oinarritu behar dela aitortzen du, lekukotasuna *epistemologikoki menpekoa* da. Beste alde batetik, lekukotasunean autoritateak duen garrantzia ere azpimarratu zuen, gehien bat hezkuntzaren arloan umeak eta gazteak manipulazioa pairatzeko arrisku handiagoa dutela aipatuz, hauen esperientzia falta dela eta. Ildo honetatik jarraituz, Humek mirarien gertakaria aztertu zuen. Demagun pertsona batek lekukotasunaren eta autoritatearen ondorioz mirarrietan sinesten duela, baina bere ezagutza sarea trinkotzen doan ahala, natura legeen aurkako gertakariak sinesten dituela konturatzen da. Bi aukera ditu: natura legeak uste baino malguagoak direla sinestea eta beraz ezagutza sarea eraldatzea, edo mirarrietan sinestera eraman duen autoritatea bera kuestionatzea. Humek bigarrena aukeratuko luke.

Aipatutako informazio denetik ondorioztatu daiteke lekukotasunak garrantzi handia duela ezagutzaren auzian, beti eta ezagutzaren beste bideek honen kontra egiten ez badute. Hau gertatzen bada, lekukotasuna ahulagoa kontsideratzen da, arrazoimena, hautematea eta oroimenaren aurrean.

### 3. Gaia: metafisika

Metafisikaren izeneko disziplinen gaia zehaztea auzi zaila da. Bere jatorria kontsideratzen den Aristotelesen *Metafisika* obra eredu bezala hartzen badugu, hainbat gai jorratzen direla ikusiko dugu: gauzen oinarriaz eta kausa-lehenez hitz egiten da, izateaz edo den guztiaz arduratuko dela aipatzen da, Jainkoaz hitz egiten da... Ziurtasun falta areagotzeko, izen bera ere (*meta* haratago, *fisika* objektu fisikoak) ez zion Aristotelesek jarri, baizik eta testu horiek interpretatzeaz arduratu zen Androniko Rodaskoak. Hitz honen bitartez batzutan fisikoa denetik haratago dagoena aztertzen dela esan nahi da (Jainkoa, adibidez), eta bestetatan, gure ezagutzaren antolamenduan fisikaren ondoren datorren jakintza mota adierazi nahi da. Ez da ziurra Aristotelesen testuen interpretazio hauek egokiak badiren, baina orokorrean esan daiteke metafisika teologiak, filosofia lehenak eta gehien bat ontologiak osatzen duetela.

#### 1. Sailkapenak. Sailkapen naturalak eta artifizialak

Gizakiaok mota desberdineko banakoak bereizten ditugu (gizakia, txakurra, ordenagailua...), inguruan daukaguna sailkatzeko eta antolatuz, banako bat sailkatzerakoan hortaz zer espero dezakegun ezartzen dugulako.. Sailkapen hauek eguneroko bizitzan ezinbestekoak dira, bai auzi orokorretan bai zientzia, musika edo artea bezalako disziplinetan ere. Sailkapen hauen izaerari buruz galdetzean zaila da esatea zergatik banatzen ditugun gauzak banatzen ditugun bezala. Badaude kategoria naturalak, naturan beran aurkitzen dugun informazioa antolatzeko balio digutenak (ura, urrea, gizakia, elektroia...), baina badaude artifizialki sailkatzen ditugun objektuak ere. *Liburu* bat *nire gelako objektu* bezala sailkatzen dudanean, gizakia sortutako banako bat (liburua) eta nire interes pertsonalak (nire gela) kontuan hartzen ditut, eta bi kontzeptu hauek ez dira naturan haien kabuz existitzen.

Argi dago sailkapenak egiterakoan ezaugarrietan oinarritzen garela, kategoria bakoitzeko objektuen arteko *antzekotasuna* bilatzen dugulako, hau da, ezaugarri bat amankomunean izatea. Antzekotasun honen nolakotasunaren arabera lehen aipatutako sailkapen naturalak eta ez-naturalak bereiztu ahal dira: sailkapen ez naturalek gizakia sortutako *funtzio* bat dute komunean (liburuak irakurtzeko eginda daude, hori da banatzen duten ezaugarri bakarra), eta sailkapen naturalek berezko ezaugarriak dituzte amankomunean. Azken hauen kasuan, *agerizko* ezaugarriak banatzen dituztela ikusi daiteke, tigrean kasuan denek itxura antzekoa dute, baina *talde* bat kontsideratzean *ezkutuko* ezaugarri ugari ere banatzen dituzte, naturaren menpe daudenak eta ez gizakien menpe (ikerkuntzen bidez berriak ezagutzen diren arren).

Liburuaren eta tigrean kasuen artean argi dago sailkapen mota desberdinak direla, baina auzia konplexuagoa bihurtu daiteke beste kontzeptu batzuegatik ordezkatzeko baditugu: nazioak naturalak ala artifizialak dira? eta gaitz psikologikoak? Eszeptizistek natura

generoen existentzia kuestionatuko dute, eta erlatibistek beste alde batetik, genero naturalen eta artifizialen bereizketa testuinguru kontua dela esango dute.

## **2. Banakoak eta ezaugarriak (Aristotelesen teoria ontologikoa)**

Lehen aipatu bezala, modu laburtuan metafisikak errealitatea eta horren antolaketa edo osagaiak azterzen dituela esan daiteke. Errealitatea aztertzerakoan, eguneroko bizitzan edo kontestu zientifiko batean, ezinbestekoa zaigu *banakoak* eta *ezaugarriak* aipatzea, gero banako eta ezaugarri horiek desberdinak izan arren (biologoak zelulak ekarriko ditu gogora, fisikariak atomoak...).

Teoria batzuen arabera banako/ezaugarri bereizketaren jatorria hizkuntzan dago, subjektu/predikatu banaketaren ondorioz sortzen delako. Bertaz ondorioztatu daiteke errealitateak ez duela berezko antolakuntzarik, eta guk hizkuntzaren bidez modu artifizialean sortzen dugula. Ideia honekin jarraituz. Hala ere, hizkuntzarik gabe (hau da, gizakirik gabe) errealitatea hauteman daiteke, hainbat ikerketa psikologikok erakutsi duten bezala. Beraz, errealitatearen sailkapena hizkuntzaz haratago doa, ideia honetan beran gure errealitatearen sailkapena txertatzen dugula argudiatu daitekeen arren. Horrela auzi klasiko batera iristiko ginatke: nola egin dezakegu jautzia gure pentsamendutik errealitatera, errealitatea bera kutsatu gabe? Ezinezkoa da auzi hau modu absolutuan erantzutea, eta beraz, onartu dezagun okerra izan daitekeen arren errealitateari buruz hitz egiterakoan banakoak/ezaugarriak bereiztu behar direla, errealitatearen benekotasuna ezagutzea gizakitik haratago dagoen auzi bat izan daitekeen arren.

Metafisikaren auziarekin jarraituz, Aristotelesen jatorrizko testuetan ikusi daitekeen bezala, den guztiaz arduratzen dela esan daiteke, den heinean bakarrik. Hau da, txakur bat txakurra dela aztertuko du soilik bere izatean, baina ez biologiaren ikuspegitik zelulaz osatuta dagoelako, hau ikuspegi partziala liratekelako. Honek arazo bat proposatzen du, denak izate hori duelako, eta beraz Aristotelesen arabera izate desberdinak banatu behar dira (txakurra ez da modu berean txakur edo marroi). Honetarako *Kategoria* testuan kategorien zerrenda orokor bat proposatuko du, eta zehatz mehatz aztertzerako sartuko ez garen arren, bertan proposatzen duen oinarrizko egitura ontologikoa edo metafisikoa ezagutzea garrantzitsua da.

*Kategoria* testuan azaltzen den teoria hiru perpaus hauen inguruan azal daiteke. Kontuan hartuta Greta eta Belle bi txakur direla:

- a) Greta txakur bat da.
- b) Greta beltza da.
- c) Greta Belle baino handiagoa da.

Esaldi hauen bidez *badiren* hainbat gauza aipatzen dira: Gretaren zakurtasuna, Gretaren kolorea, eta Gretaren eta Belleren arteko erlazioa (bata bestea baino handiagoa izatea). Honek *kategoria* desberdinak erakusten ditu, hala nola, Greta den heinean banakoa da eta zakurra izatea bere ezaugarri orokorrena da, hau da, Greta *substantzia* da baina bere zakurtasuna ere, beste maila batean. Kolore beltza *kualitatea* da, Greta nolakoa den esaten

digulako, eta handiagoa berriz *erlazio* bat da, beste substantzia batetik konparatzerakoan ikusgarri bihurtzen dena. Hauek guztiak kategoriak dira Aristotelesen usteetan. Gainera, kategoria guztiek zuhaitz egitura dute, errealitatea zehatzago ezagutzeko erabiltzen ditugunak (Greta txakurra da baina aldi berean animalia, eta biziduna...).

Kategoria hauen bidez ikuspegi ontologiko orokor bat lortzen dugu gizakiok, eta hau aztertzea da metafisikaren zereginik nagusia. Beraz, zein da Aristotelesen ustez katogoriek ematen diguten ikuspegi ontologikoa? Aristotelesek ontologiaren oinarrian *substantzia lehenak* jarriko ditu, banakoak, gauza guztiak banakoetan daudelako edo banakoi buruz esaten direlako. Bereizketa aristoteliko honek hau esaten digu: sistema ontologikoaren oinarrian banakoak daude, eta haien menpe bestelako kategoriak daude, banakorik gabe existituko ez lirakeenak. Mendean dauden kategorien artean zerbait *zer den* esaten digutenak daude (Gretaren zakurtasuna), edota zerbait *nolakoa* den esaten digutenak. Lehenengoak *bigarren substantzia* kontsideratuko ditu, banakoaren izateko moduarekin esturik lotuta daudelako. Hau da, ezin dezakegu Greta zakur izan gabe irudikatu, baina bat zuria izanda edo Belle baino txikiagoa izanda. Terminologia eguneratuago batean, Aristotelesek banakoak, banako motak (ingeleraz kind dena) eta ezaugarriak banatzen dituela esan daiteke, lehen aipatutako errealitatearen banako/ezaugarri ikuspegiari elementu bat gehituz.

Banako/ezaugarri bereizketara bueltatuz, banakoa ezagutzeko haren ezaugarriak bitartekari beharrezkoak direla ondorioztatu dezakegu (mahi bat deskribatzerakoan bere forma, materiala, kolorea... aipatuko ditut). Honek hainbat galdera ontologiko proposatzen ditu: zer da ezaugarri bat? zer da banakoa bere ezaugarriak alde batera uzten baditugu? ba al daude maila desberdineko ezaugarriak? Galdera hauen erantzuna edo haiei buruzko hausnarketa hurrengo ataletan aurkituko dugu.

### **3. Zer da ezaugarri bat?**

Ezaugarriak izaera zehatz bat du, banakotik argi eta garbi bereizten dena. Banakoa une batean, leku batean dago, *partikularra* da, baina ezaugarriak *unibertsalak* dira. Ezinezkoa da Greta Bilbon eta Donostian aldi berean egotea, baina *txakurra izatearen* ezaugarria bietan existitzen da aldi berean. Unibertsal hauei esker banakoak taldeetan sailkatu eta errealitatea antola dezakegu, baina hauek filosofian susmopean egon dira, gauza bera toki askotan aldi berean *izateak* arazo ontologiko bat proposatzen duelako.

Argi dago "txakurra da" adierazpen predikatiboa kontestu desberdinetan erabili daitekeela aldi berean, ezin da hizkuntza-gertakizun hori ukatu, baina hortik *zakurra izatearen* unibertsala errealitatean existitzen den zerbait dela baieztatzera pausu handia dago. Unibertsalik existitzen ez den filosofoari *nominalista* deritzo, eta aurkakoa ukatzen duenari, *errealista*. Eztabaida klasiko honek Erdi Aroan jo zuen bere gorena, baina gaur egun arte bizi jarraitzen duen auzi filosofikoa da. Bertrand Russellek horrela definitzen du jarrera nominalistak erabilitako estrategia bat: A objektu bat dut, eta bere antzeko objektuei *triangelu* esango diegu, baina ez triangelutasuna existitzen delako, baizik eta A objektuarekiko antzekotasun erlazio baten ondorioz. Rusellek ikuspegi hau kritikatzeko du, hau bete dadin *antzekotasuna* bera unibertsala izan behar dela aitortzen delako implizituki: A eta B objektuak triangeluak badira eta A eta C ere bai, antzekoek antzekotasun bera izan

behar dute momentu berean. Saiakera ugari egin dituzte nominalistez ezaugarriak unibertsalak diren heinean ezabatzeko, baina unibertsaltasunarekin egin dute topo behin eta berriro.

#### **4. Predikatuak, kontzeptuak eta ezaugarriak**

*Predikatu*, *kontzeptu* eta *ezaugarri* hitzak modu nahasian erabili ohi dira, eta beraz, atal honen helburua haien esanahia eta erabilera argitzea izango da. Predikatua perpausaren osagaia da, eta ezaugarria berriz, ontologiarena edo metafisikarena (horregatik esan daiteke nominalisten arabera predikatuak daudela baina ezaugarririk ez). Honi *kontzeptu* hitzaren erabilera gehitu behar zaio, batzutan predikatua izendatzeko, bestetan ezaugarria izendatzeko eta beste batzuetan ez predikatua ez kontzeptua den hori izendatzeko erabiltzen den hitza delako.

Askotan kontzeptu eta ezaugarri hitzak nahastu ohi direnez, azter ditzagun bakoitza zehazki zer den eta ze erabilera filosofiko dituzten. Gottlob Frege filosofoak auzi honi buruzko bereizketa bat proposatu zuen, zentzuaren eta erreferentziaren artekoa. Bere arabera, hizkuntzaren elementuek zentzua eta erreferentzia dute: Barack Obamaren kasuan bere zentzua Obamaren deskribapena izan daiteke, AEBko lehen presidente beltza, eta erreferentzia berriz munduan zehar dabilen Obama. Predikatuek ere bi elementu hauek dituztela kontuan izanda, esan daiteke predikatu baten erreferentzia bere ezaugarria dela eta bere zentzua kontzeptua. Bereizketa eginda, kontzeptuen nolakotasuna ulertzeko, hurrengo hiru ideiak hartu daitezke kontuan:

1. Kontzeptuek ezaugarriak identifikatzeko aurkezpen moduak edo bideak eskeini behar dituzte.
2. Kontzeptuak subjektu-arteak dira, hau da, ez dira izaki pribatuak, partekatuak baizik.
3. Kontzeptuak epistemologikoki gardenak dira, hau da, ezaugarrien ageriko alderdiekin lotuta daude.

Hau ulertzeko, erabil dezagun adibide bat: “txakurra da” predikatuaren barruan txakur kontzeptua eta txakur izatearen ezaugarria daude. Txakurra izatearen ezaugarria txakur guztiek duten hori da, errealitatean dudarik gabe existitzen dena. Ezaugarri horretara heltzeko *txakur* kontzeptua erabiltzen dugu, bere definizioan sartzen diren gauza horiek kontuan hartuta: fidela da, otsoaren antzekoa da, etxeaberea da... Hau da zakur predikatuaren zentzua, bere kontzeptua. Kontzeptua ezin da ezaugarririk gabe ulertu, epistemologikoki hutsa da, baina ezaugarri multzoak antolatu eta errealitatean identifikatzeko beharrezkoak dira. Laburbilduz, esan daiteke *predikatuak* hizkuntzan daudela, *ezaugarriak* errealitatean eta *kontzeptuak* gure buruan.

## **5. Aldakuntza eta ezaugarriak. Identitateak**

Aldakuntza gure inguruan konstantea da, eta hainbat mota ikus ditzakegu: gu aldatzen gara, kultura aldatzen da, objektu zehatzak aldatzen dira... Hiru mota bereiz ditzakegu: ezaugarri bat aldatzea (lehen grisa zen mahi bat berdez margotzea), ezaugarri baten neurria aldatzea (pertsonek bat altuagoa edo lodiagoa bihurtzea) eta muturrezko aldaketa (banako bat existentziara etortzea edo existentziatik ateratzea).

Aristotelesen arabera, azken aldaketa motak izan ezik, beste biek *zerbait* berdin gelditzea eskatzen dute, eta beraz, banakoak *zenbakizko identitatea* mantentzen duela esan dezakegu, oraindik banako bera dela indentifikatzeko gaitasuna mantentzen delako. Baina hau egia al da beti? Argi dago mahi baten kolorea aldatzen badugu mahi bera dela, baina arazoa konplexuagoa bihurtzen da mahi horren zurarekin aulki bat egiten badugu. Kasu honetan *mota* izeneko ezaugarria aldatu dugu, eta identitatea aldatu dugu. Badirudi ezaugarri batzuk identitateari eustearekin bateragarriak direla, eta beste batzuk ez. Pentsalari batzuen arabera, badaude ezaugarri esentzial batzuk (haien artean *mota*), non aldaketa hain muturrekoa den, non banakoaren identitate bera zalantzan jartzen den.

Identitate-aldaketaren auzian hainbat egoera paradoxiko planteatu dira, adibidez, Pasai Donibanetik Pasai Sanpedrora doan txalupa-zerbitzuarena. Imagina dezagun usteltzen doan ahala txaluparen ohol bat aldatzen dela astero, eta gutxinaka gutxinaka,, elementu denak aldatzen dira, motorra ere bai. Txalupa beraren aurrean gaudela esan ahalko genuke, bere zerbitzu bera bete arren elementu guztiak aldatu dituen arren? Egun batean biltegian dauden pieza eta motor zaharrak bildu eta beste txalupa bat egiten badu, eta museo batean jartzen badu, zein da hasierako txaluparen *oinordekoa*? Non dago identitatearen giltza kasu honetan? Egoera hau beste batzuetara aplikatu daiteke, hala nola, gizakiaren zelulak etengabe aldatzen dira, edo erakundeetan pertsonak aldatzen dira, nazioetan biztanleria, gobernuak, hizkuntza etengabe aldatzen da...

## **6. Erlazio kausala**

Orain arte ontologiari buruz hitz egiterakoan kategoria desberdinak bereizi ditugu, inplizitu edo esplizituki izateari buruzko teoriak egiteko erabiltzen direnak ezaugarriak, banakoak, motak), baina izatearen edozein esparrutan gertakariak, egoerak eta gertaldiak ere badaude (euria egingo duela uste dudanean egoera psikologiko batean nago, edo haserre nagoenean...). Gertakari hauek haien artean harremanetan daude, gertakari fisikoak eta psikologikoak adibidez, eta harreman hori ia gehienetan *kausala* da (A-k istripu bat izan zuen A-ren depresioarengatik).

Erlazio kausala *unibertsoaren porlana* deitu izan da, bertako gertakariak lotu eta unibertsoa bera trinkotzen duelako. Kausalitate gabe ez genuke ezagutzen dugun bezalako mundurik izango, baizik eta loturarik gabeko gertakarien multzo ulertezina. Zientzietan agerikoa da kasualitatearen ikerketa nork egiten duen (kimikariek gertakari kimikoen arteko lotura kausalak aztertzen dituzte, fisikariek gertakari fisikoenak...), baina eguneroko gertakarien arteko lotura kausalaz berriz filosofia aritu ohi da, zehazki, metafisika, Aristotelesek zioen bezala, metafisika kausen zientzia delako. Aristotelesek lau kausa mota bereizi zituen:



materiala, formala, eragilea eta xehedezkoa. Giltz baten kasuan, kausa materiala burdina da, formala burdina giltz bihurtzeko modua, eragilea prozesuaz arduratu den erremintaria eta xehedezkoa giltzak atek irekitzeko duen funtzioa.

Gaur egun, *lotura* edo *erlazio kausala* jarri da kausalitatearen gaineko gogoetaren erdian, gehien bat maila desberdinak duten gertakarien artekoa (laudorioek haren aurpegia gorritzea eragin zuten), eta ez hainbeste gertakari horiek maila berekoak direnean (mahian emandako kolpeak edalontzia lurrera erortzea eragin zuen). Lehenengo kasuan, izatearen maila desberdinen arteko erlazioa arakatzeko aukera irekitzen da, hala nola, gertakari fisiko eta psikologikoak maila ontologiko edo metafisiko beran egoteari buruzko galderak, arazo klasikoetara heldu arte: zein da gorputzaren eta gogoaren arteko erlazioa? Zein da biziaren eta hura ahalbidetzen duten elementu kimikoen arteko erlazioa?

Erlazio kausalak aztertzeraz bueltatuz, bi elementu bereiztu behar dira: kausa eta efektua. Batzutan kausak eta efektuak identifikatzea erraza dela dirudi, baina askotan, adibidez kausa berak efektu desberdinak dituenean pertsona desberdinetan, hau zehazki identifikatzea arazo latza izan daiteke. David Humerek, *lotura kausala* identifikatzeko arazo honen aurrean, *lotura kausalik* ez dagoela defendatu zuen, bere ustez, gizakiak bere burutik mundura proiektatzen du kausalitate hau, errepikapenen karira: A gertakariak B eragingo du, baldin eta A gertatzen den bakoitzean geroago B gertatzen bada. Teoria honen arazoa kasualitatea (edo kontzidentzia) kausalitate bihurtzea da, A eta B-k benetan erlazorik izan ez arren Humen ikuspuntutik bata bestearen kausa izaten jarraituko duelako. Kausalitatea eta kasualitatea bereizteko ezintasun honen ondorioz interprete ugari Hume kausalitatearen inguruko eszeptikoa kontsideratu dute, baina bera kausalitatearen *izaera metafisikoaren* gaineko eszeptikoa da.

Humear ikuspuntuak, ikusi bezala, kausa eta efektuaren arteko harreman ahula deskribatzen du, errepikapenean oinarritzen dena eta beti kointzidentziaren ondorio zuzena izan daitekeela, baina ba al dago gure unibertsoaren erdigunea den kausalitate hau hobeto definitzeko modurik? Badaude beste teoria batzuk, hala nola ikuspegi kontrafaktikoa, non A B-ren kausa kontsideratzen den A gertatzean B gertatzen bada, eta A ez gertatzeak B ez gertatzea ere ekarriko balu. Hala ere, definizio honek ere arazoak ditu, A pertsona jaioko ez balitz ez litzatekeelako hilko, baina ezin da esan A ren jaiotza A-ren heriotzaren kausa dela. Eztabaida hau gaur egun ere filosofiaren erdigunean kokatzen den auzi bat da, eta bai humear ikuspuntua bai ikuspuntu faktikoa ere kontuan hartzen ari dira teoria sofistikatukoak proposatzeko.

## **7. Erredukzionismoaren auzia**

Banakoak atalez edo elementuz osatutako izaki konplexuak dira, eta horregatik metafisikaren ardura izan da haien konplexutasunari buruzko teoriak proposatzea. Hala ere, konplexutasun honek mailak ditu. Ez da berdina harri bat eta *smartphone* bat konparatzea: harriak ez ditu bere elementuek baino gaitasun gehiago, baina *smartphonak* bere elementuen baturaren ondorioz funtzio konplexuagoak garatzen ditu. Hala ere, aditu batek argudiatu ditzake ondo ezagututa, mugikorren funtzio “gehigarriak” bere elementuen baturaren ondorio direla soilik.

Konplexutasunaren auzia dela eta, pentsalari ugarik esan dute konplexutasunak berriztapena dakarrela, eta beraz, zerbaiten elementuak osotasunean ezagutu arren, ezinezkoa dela horiek batzearen emaitzaren ezaugarriak aurreikustea. Bizitza aztertzerakoan, adibidez, ezagutzen ditugu hau sortzeko beharrezkoak diren kimikoak, baina ezin dezakegu guztiz ezagutu bizitza *zer den*. Pentsalari hauen arabera, badaude fenomeno batzuk ezin direla bere elementuetara erredukzitu, emergenteak direnak, eta beraz, ezin direnak bere osotasun konplexura murriztu. Emergenteen aurrez-aurre erredukzionistak daude. Hauek mundua piramide bat izango balitz bezala ikusten dute: oinarrian fisika dago, gero kimika, gero biologia... Erredukzionista batek biziaeren esanahia DNA-an oinarrituko luke, eta DNA-arena kimikan, eta abar.

## 4. Gaia: Hizkuntza, pentsamendua eta mundua: hitzak, ideiak eta gauzak

Hizkuntzak garrantzi handia du giza bizitzan, elkarren arteko komunikazioa ahalbidetzen duelako, gure pentsamenduak bideratzen dituelako, eta gure gogo biziaren ispilua delako. Hizkuntza gure gogamenaren eta munduaren arteko bitartekaria da, eta hartan eragiteko tresna zentrala da. Giza esperientzian hizkuntzak duen ezinbesteko rolaren ondorioz, honen inguruko hainbat planteamendu egin dira: gizakion eta animalien arteko bereizketa gisa planteatu izan da, hizkuntzak pentsamenduarekiko lehentasuna duela esan da, auzi filosofiko oro hizkuntza arazo bat dela esan da...

### 1. Esanahi kontzeptua

Edozein hizkuntza-gertakari arrakastatsu gertatzen denean, (pertsonek dioena ulertzen dugunean, besteek guk esaten duguna ulertzen dutenean, testu bat irakurri eta ulertzen dugunean...), komunikazio horretan parte hartzen duten hitzen esanahia bereganatzen dugula esan daiteke, hori baita benetan ulertzea. Beraz, esanahia hizkuntzaren funtzionamendua ezagutzeko kontzeptu zentrala dela argi dago, baina zer da benetan hitz baten esanahia?

Alde batetik, esanahiaren izaera arau-emailea aipatu behar da, haren izenean hitz egiterakoan zuzenketak egiten baititugu. Nik behi bat ikustean "hori zaldia da" esaten badut, arrazoi osoz norbaitek "zaldi" hitza txarto erabili dudala leporatuko dit, hitzaren *esanahia* eta errealitatea ez datozelako bat. Hitz bakoitza arau txiki bat da, eta esaldietan batzen ditugunean beste arau txiki batzuk sortzen dira, gramatika edo sintaxiarekin zerikusia dutenak. Hizkuntza bakar batek milaka arautxo ditu bere baitan, eta horregatik dio Noam Chomsky-k sortzetiko gramatika bat dugula, bestela ume batek milaka arau hauek bereganatzea ezinezkoa izango litzatekeelako.

Jarraitzeko, hizkuntza intenzionala dela esan daiteke, munduari buruz mintzatzeko ahalmena du eta. Gaitasun hori azaltzeko hainbat teoria daude, adibidez, gogamenak berez izaera intenzionala duela esatea, eta hizkuntzak gaitasun hori hartzen duela munduaren eta gogamenaren arteko bitartekaria delako. Nik euria ari duela pentsatzen badut, nire pentsamenduak kanpora begiratzen du, kanpoko egoera bati buruzkoa delako. "Euria egiten du" esaldia esaten dudanean, hizkuntza hori *intenzionala* bihurtzen da, baina nire jatorrizko pentsamendua ere intenzionala den neurrian. Gogamenaren eta hizkuntzaren arteko lotura estua da, beraz, eta lotura hori zehazteko Lockek "ideia" gogo-entitatea ekarriko du burura, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Beste eztabaida klasiko bat hizkuntzaren izaera *konbentzionalaren* ingurukoa da. "Zakur" hitzak benetako zakur bati egiten dio erreferentzia, kea ikusten dugunean sua dagoela dakigun modu berean. Bata bestearen sinbolo bat da, baina kearen kasuan, naturan bertan sortzen da harremana, eta "zakur" hizarenean, berriz, erlazio hori gizakiak erabaki duela

esan daiteke. Aristotelesek, *Interpretazioaz* izeneko testuan, hiru baieztapen egin zituen honen inguruan: (i) ahozko hizkuntza pentsamenduaren *sinboloa* da, (ii) idatziko hizkuntza ahozko hizkuntzaren sinboloa da, (iii) pentsamenduak gauza errealean irudiak dira. Honen arabera, Aristotelesek esango du hizkuntza aldakorra dela, baina pentsamenduak berriz komunak izango direla. Pentsamenduak eta errealitateak edo gauzek lotura natural bat dute, bata bestearen irudia delako, baina pentsamenduak eta hizkuntzak berriz harreman *konbentzionala* dute. Hartaz, errealitatearen eta hizkuntzen harremana zeharkakoa da, pentsamendua erdian dagoelako, eta beraz horra jo behar da esanahia edo hizkuntzaren izaera intenzionala ulertzeko.

## **2. Esanahiaren auzia Lockeren filosofian**

Lockek bere hizkuntzaren teoria *hitzen*, *ideien* eta *gauzen* inguruan eraikiko du, Aristotelesek proposatutako antzeko tesia defendatzeko: ideiek modu naturalean errepresentatzen dituzte gauzak, eta hitzek berriz ideiak modu konbentzionalen. Beraz, errealitatearen eta hizkuntzaren arten ideien mundu bat kokatzen du, modu zeharkatuan hitzek ere gauzak azaltzen dituztela esateko. Modu honetan, ezagutzarekin bat datorren hizkuntza barne-esperientzietan oinarritzen du Lockek, ideietan, eta ez kanpo-esperientziari dagokion gauzetan. Nik sagar bat ikusten badut, eta bost minutu geroago substantzia haluzinogeno baten ondorioz berriro ere hor ez dagoen sagar bat ikusten badut, “sagar bat ikusten dut” esaldia esan dezaket bi egoeretan. Bietan sagarraren ideia dut nire kontzientzian, baina batean sagarra bere ere hor dago, eta bestean ez. Ideiatik gauzara saltoa ez da beti ziurra, eta horregatik Lockek “zubi” hori eraikitzen du, hizkuntzak norberaren ikuspegia azaltzeko balio duela esateko. Laburbilduz, hitzak ideia esan nahi du, eta ideia gauza bati lotzen zaio.

Lockek, aurreko argudiaketa kontuan hartuz, hizkuntzaren eta ideien arteko lotura konbentzionala dela esango du, horrela sortzen diren hizkuntza desberdinak, baina ez du argituko ideien eta gauzen arteko loturaren izaera zein den. Aristotelesen kasuan *harreman naturala* dela esango du, baina Lockeri dagokionez interpretazio ugari egin daitezke: batzuek ideiak gauzen irudiak direla diote (maparen eta lurraldearen arteko erlazio mota bera), eta besteek lotura *kausala* dela esango dute (kearen kasuan bezala, kea suaren kausa denez horren sinbolo bihurtzen da, antzekotasunik ez dagoen arren).

Ikusi daitekenez, kontuak kontu, Lockeren teoriaren erdigunean *Ideien Erresuma* dago. Lockeren arabera gizakiaren gogamena jaiotzea *tabula rasa* bat da, eta gure bizibidean giza-gogamena gutxinaka gutxinaka ideiaz beteko da, esperientzien eta zentzumenen ondorioz. Beraz, gure gogamenean dagoen edozer ideia bat da, eta Lockeren arabera, oinarrizko ideia *simple* batzuetatik datoz beste denak. Hauek dira ideia simple horiek eskuratzeko bi iturri nagusiak:

1. Zentzumenen bitartzen *zentzumen ideiak* eskuratzen ditugu (zuri, gogor, bero, gozo). Batzutan ideia hauek zentzumen bakar batek jasotzen ditu (zuri), baina beste batzutan zentzu ugariaren gehiketa dira (forma, mugimendua).

2. *Beste alde batetik, gogamenak berak egiten dituen eragiketen bidez ere ideiak eskuratzen ditugu, pentsatzen dugunean, nahi dugunean... Hauek gogoeta-ideiak dira (itxaropena, irudikatzearen ideia...)*

Lockerren enpirismoak, beraz, sortzetiko ideiarik ez dagoela defendatzen du, eta abiapuntu horretatik abiatuz beste arazo filosofikoei aurre egin nahi die. Lehen aipatutako ideia simple hauek konbinatuz beste ideia guztiak lortzen ditugula defendatzen du (gaziaren eta zuriaren ideiak elkartuz gatza lortzen da). Substantzien ideiak (gizakia, tigrea, Jainkoa), beraz, konplexuak dira, ideia simple ugariaren gehitura direlako. Gainera, Lockek *moduaren* kategoria ere sortuko du, adimenaren sorkuntza diren ideiak substantzietatik bereizteko. Adibidez, lerro zuzenak izatearen, itxia izatearen eta hiru alde izatearen ideiak adimenean batzen dira triangelu *modua* sortzeko.

Lockerren teoriaren xehetsunak alde batera utzita, buelta gaitetzen haren tesi nagusira: hitzaren lehen esanahia ideia da. Ideiak gure gogamenean sortzen diren barne-esperientziaren osagai subjektiboak direla kontuan hartuta, hurrengo ezaugarriak dituztela esan dezakegu: pribatuak dira (norberak bere ideia du), eta ezagutzeko bide bakarra dira (introspektzioa da bidea). Ideia hauek erdigunean kokatzen dituen teoria honek, beraz, hurrengo auziei erantzun zehatzak emateko gaitasuna du:

1. *Nola eskuratzen du hizkuntzak bere izaera intentsionala? Ideiek erresumari esker, ideiek eta munduak duten lotura naturalak hauei intentsionalitatea ematen dielako.*
2. *Nola da posible hitz baten bidez bi pertsonen elkar ulertzea? Hitzek atxikituta ideia bakar bat dutelako, norberak hitz horri buruz pentsatzean irudikatzen duena.*
3. *Zergatik hitz desberdinek hizkuntza desberdinetan esanahi bera dute (behi/vaca)? Bi konbentzioren eskutik ideia bera atxikituta dutelako.*
4. *Zer gertatzen da hitz baten erabilera okerra salatzen dugunean? Konbentzio baten apurketa salatzen ari gara, hitz bakoitzak ideia bat errepresentatzen duenez, beste ideia bat errepresentatzeko erabiltzea horren erabilera okerra egitea delako.*
5. *Zer da lehenago, hizkuntza edo pentsamendua? Pentsamendua lehenago dator, ideiak giza-pertzepzioaren erdigunean dagoelako. Hizkuntza ideia hauei konbentzioak gehitzen zaizkienean sortzen da, baina izan daiteke animaliek beraien pertzepzioaren bidez ideia erresuma propio bat izatea, hizkuntza ez badute ere. Honen aurkako jarrera pentsalari askok defendatu dute, hizkuntzaren bidez pentsatzeko gaitasuna garatu dugula esanez.*
6. *Zergatik da hitz baten esanahia ideia, eta ez gauza? Hitzek hizkuntzak zentzua izan dezan esanahi ziur bat izan behar dute, baina gogamenaren eta errealtatearen harteko harremanaz ziur egotea ezinezkoa denez, ziurtasunez ezagutu dezakegun entitate bakarrean jartzen du esanahia: ideiak.*
7. *Zergatik da konbentzionala hitzen eta ideien arteko lotura? Tokian tokira aldatzen direnez, aniztasun hori tradizio desberdineko ohitura eta akordioetan oinarritu behar da.*

### **3. Arazoak Lockeren hizkuntzaren filosofian**

Lockeren tesi nagusiak hitz bakoitzari ideia bat dagokiola defendatzen du, eta horitik tiraka Ideien Erresumari buruzko hausnarketak egingo ditu. Hala ere, teoria honek erantzunik gabeko hainbat galdera eta arazo ditu bere baitan:

1. *Zein da “ez” edo “baina” bezalako hitzei dagokien ideia?* Hitz hauek, batez ere juntagailuek eta zenbakitzaileek, garrantzi handia dute hizkuntzan, hitz sinpleak egitura konplexuak bihurtzeko beharrezkoak direlako (honi *konposagarritasuna* deritzo). Hala ere, Lockeren teoriak ez du hizkuntzak duen berezko gaitasun hau azaltzen, hitz eta egitura hauek ez baitaude errealitatean aurki ditzakegun ideiei lotuta.
2. Adibide bat hartuz, “triangelu” hitza, zein izango litzateke hitz horri dagokion ideia zehatza? Triangeluei buruz pentsatzen dugunean honen mota bat irudikatzen dugu (demagun angeluzuzena dela), baina beste motatako triangeluak izendatzeko ere ideia orokor hori erabiltzen dugu. Hitz orokorrek erabilera zehatza ere badute, Lockeren teorian azaltzen ez den arren.
3. Lockerentzat gogamena ideien erresuma bat da, izaera *irudikatzailea* du, baina badade gogo-egoera batzuk irudi batekin lotu ezin direnak: sentimenduak, sentsazioak... Honen arabera, Lockeren errepresentazioa ez da gogamenaren deskribapen egokia.
4. Lockeren arabera ideiek izaera pribatua badute, norberarenak badira, nola bermatu daiteke nik dudan ideia eta besteek duten ideia berdina dela? Nola bermatu komunikazioa, nork bere ideiak baditu?

### **4. (Bigarren) Wittgenstein: Lockear ikuspegiaren aurkako bestelako arrazoiak**

Lehen Lockeren teoriari aurkitu ahal zaizkion arazoak proposatu ditugu, erantzun gabe uzten dituen galderak gehien bat, baina Wittgenstein (1889-1951) filosofoak *Azterketa filosofikoak* obran bestelako kritikak egin zizkion ikuspegi lockearrari:

#### **- Definizio erakusleak ezin dira izan hizkuntzaren funtsa edo oinarria**

Demagun gure buruan gorria irudikatze *gorria den orbaina*-ren ideia dugula, eta norbaitek gorria zer den galdetzen duenean, orbain bat seinalatzen dugula. Hori definizio erakusle bat da, eta Locke uste du hitzez hitz definizio erakusleak erabiliz hizkuntzaren esanahia definitu daitekeela. Wittgensteinen arabera, aldiz, hizkuntzarik gabe ezin dire definizio hauek gertatu, eta beraz, ezinezkoa da hau hizkuntzaren funtsa izatea. Definizio hauek interpretazio desberdinak dituzte, adibidez, nik ordaina seinalatzean, nola daki beste pertsonak “gorria” hitzak ez diola tamainari edo sakontasunari erreferentzia egiten,

hizkuntza erabili gabe? Hala, esleipen hauek ezin dira hizkuntzaren funtsa izan, hizkuntzaren premia baitute.

#### - **Irudiek ez dute berezko esanahia: irudiak ere interpretatu behar dira**

Lockeren arabera, hitzak arau-emaileak dira ideiak errepresentatzen dituzten neurriak, ideiak baitira berez arauemaileak. Zerbait "gorria" dela diogu, gorria den ideia batekin lotzen badugu, eta hitz horren erabilera txarra izango litzateke urdina den ideia bat izendatzeko erabiltzen bada. Beraz, izaera arauemaile hau ideiak eta errealitateak duten harreman naturalaren ondoriozkoa da, antzekotasun erlazio batetan oinarritzen dela. Wittgensteinen arabera, irudiak eta beraz ideiak interpretazioaren menpe daudenez, ezin daiteke esan ideiak eta gauzak naturalki harremanetan daudela. Gorria den zerbaiten ideia izateak ez du zertan gauza gorri horrekin berezko harremanik izan, eta beraz, hitzak eta ideiak arazo berdina izango lukete: ezin dira esanahiaren auzia argitzeko erabili.

#### - **Hizkuntza pribatua**

Wittgensteinek Lockeren ikuspegia (eta *lehen Wittgenstein* deiturikoarena ere) oker dabilela uste du, esanahiaren auzia beste modu batean jorratu behar delako. Lockeren arabera hitzak ideiak dira, eta ideiak norberarenak direnez, *hizkuntza pribatua* dela esango du, eta beraz introspekzioz soilik ezagutu dezakegu. Wittgensteinek hizkuntza pribatua izatea ezinezkoa dela premisa kontuan hartuz, hurrengo argudiaketaren bidez Lockeren ikuspegia kritikatu du: (1. premisa) hizkuntza lockearra pribatua bada, eta (2. premisa) ezinezkoa bada hizkuntza bat pribatua izatea, (ondorioa) lockear ikuspegia okerra izan behar da. Argudio honen bidez Locke zuzenki kritikatu den arren, eragin zabalagoa du, hizkuntza maila batean edo bestean pribatua dela defendatzen duten hainbat pentsalari egon direlako historian zehar.

Argudio deduktibo honi aurre egiteko, bere premisei aurre egin behar zaie. Lehen premisari dagokionez, Locke berak ere hau ukatzeko saiakera egin zuen. Konturatu zen hizkuntza guztiz pribatua dela onartzeak komunikaziorako oztopo bat izango litzatekeela, eta beraz, pertsonen arteko ideien inguruko antzekotasun maila nahikoa dagoela defendatu du. Argudiaketa honi buruzko iritzi desberdinak daude, baina, kontuak kontu, Wittgensteinen benetako ekarpena bigarren premisa izango da. Bere ustez, ezinezkoa da hizkuntza pribatua izatea, arauemaile den heinean (eta ikusi dugu, hizkuntza berez arauemaile dela). Honetarako hainbat arrazoi ematen ditu, alde batetik lehen aipatutako definizio erakusleen eta irudien interpretazioaren garrantziaren bidez, eta bestetik 258. paragrafo ospetsuan modu pribatuan arau bat ezartzeko modua azalduz.

Azken arrazoi honetan, hau da, arauak modu pribatuak ezartzeko moduan, arakatzeko, jar dezagun adibide bat. Demagun nik gaur pribatuki erabakitzen dudala A hitzak Z esan nahi duela, eta beraz, bihar Z ikustean A erabiltzea erabakitzen dudala, nire oroimenean oinarrituz. Kasu honetan, ezinezkoa da baieztatzea erabilera hau zuzena den ala ez, bakarrik *niretzat zuzena baden ala ez*. Nik egunkari bat hartu eta ez banaiz bertako informazioaz fidatzen, ez du zentzurik egunkari bera erostea informazio hori kontrastatzeko. Hau da hizkuntza pribatua kritikatzeko Wittgensteinen bidea.

Aurretik aipatu dugu Wittgensteinek Lockeren ikuspegiaren inguruan duen iritzia, baina, nola ulertzen du esanahia Wittgenstein berak? Galdera honek ez du erantzun errazik, baina laburbilduz esan daiteke Wittgensteinen arabera hizkuntza ulertzea aru bati jarraipena ematea bezalakoa dela, ez norberaren interpretazioa eginez, baizik eta jokaera bat moldatuz. Beraz, hizkuntzaren eta ekintzaren arteko *apriorizko* harremana dagoela defendatuko du. Hizkuntza ekintza gisa ulertuz esanahia ulertzeko modu berri bati atea ireki zion. Gainera, hizkuntza pribatasunetik ulertzearen ideia kritikatu du, eta gizartetik norbanakora doan zerbait dela esango du, hau da, esanahiaren funtsezko ezaugarria bere erabilera dela. Ideiek, esanahiari dagokionez, ez dute zer esan handirik hizkuntzaren teoria honetan.

Wittgensteinek, beraz, hizkuntzaren izaera arauemailea ohituraren bidez justifikatzen du, eta hitz baten aurretiko erabilerak etorkizunean (eta beraz, beti) izango duen erabilera erabakitzen duela. Honek kritika gogorak jaso ditu, Wittgensteinek ez duelako zehazten esanahia benetan *zer den eta nola sortzen den*, bakarrik zer ez den. Saul Kripke filosofoak argudiatu du Wittgensteinen ikuskera hau, eta hain arrakastsua izan zen, non lehenengo eta bigarren Wittgenstein bereizteaz gain Kripleren Wittgenstein ere bereizten den. Kripleren arabera (Wittgensteinek dio) hitz baten erabilerak ezin duela arau bakar bat zehaztu, eta *induzkioaren arazo berria* proposatzen du. Hau adibide baten bidez ulertu daiteke:

Zenbaki segida bat 1, 3, 5, 7, 9, 11... bada, norbait etorriko da eta esango du hurrengo zenbakia 13 dela, aurreko zenbakiari bi gehitzen zaiolako segida osoan zehar. Hala ere, beste pertsona bat etorri daiteke (Wittgenstein), eta esan dezake hurrengo zenbakia 38 dela, segida osoan zehar bi gehitzen direlako 11ra heldu arte, eta hor 27 gehitzen hasten dira.

Kasu honetan, ikusi daiteke etorkizuna iraganaren interpretazioen menpe dagoela, eta beraz, ezinezkoa dela behin betiko arau bat ezartzea. Hitzen kasuan berdina gertatuko litzateke, eta beraz, araurik gabe esanahia zehazterik ez dagoenez, Wittgensteinek ez luke esanahia definitzeko proposamen baliagarriarik egingo. Hau da Kripleren Wittgensteinen eszeptizismoa, baina pentsalari asko ere honen kontra daudela aipatu behar da, amaiera gabeko eztabaida baita hau.